

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Euskara

Euskara ikasteko diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko berariazko oinarriak. 2019-2020 ikasturtea

2019ko uztailaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak euskara ikasteko diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko berariazko oinarriak.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautuaren ildotik, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta Gasteizko Udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran hasierako onespena eman zion eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn — 5. zenbakia — argitaratu zen Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan arautuaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria Gasteizen, 2019ko uztailaren 23an

Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria
AMAIA BARREDO MARTÍN

Sarrera

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko urtarrilaren 13ko ALHAOn — 19. zenbakia — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi dutenek horietara jo beharko dute oinarri hauetan arautzen ez denaren berri izateko.

1. Diru-laguntzen ildoak

6.2. ildoak. Euskara ikasteko laguntzak.

2. Deialdiaren xedea

2019-2020 ikasturtean euskara ikasteko laguntzak ematea. 2019ko uztailetik 2020ko ekainera bitartean egiten diren ikastaroetarako emango dira diru-laguntzak.

Udaleko Euskara Zerbitzuaren 2020ko 0171.3351.48001 aurrekontu-partidaren kontura ordainduko dira laguntza horiek. Guztira, 149.000,00 euro izango dira horretarako. 2020. urteko aurrekontuetan — deialdia ebatzen den unean — kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean egongo da kopuru hori. Baldin eta hasieran aurreikusitakoa baino diru-kopuru handiagoz hornitzen bada partida hori 2020ko aurrekontuetan, deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak, eta ebazpena eman aurretik behar den gastu-dosierra izapidetu, beste deialdi bat egiteko beharrik gabe.

3. Diru-laguntzaren xede izango diren ikastaroen ezaugarriak

– HABEk – Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea – onetsitako zentroek ematen dituzten ikastaroetarako izango dira diru-laguntzak, aurrez aurrekoak, autoikaskuntzakoak nahiz mistoak izan.

– Aukeratzen den ikastaroak – aurrez aurrekoa, autoikaskuntzakoak nahiz mistoa izan – gutxienez 60 orduko iraupena izan beharko du, Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumeko (HEOC) azpimaila bat gainditzeko lain.

4. Onuradunak

Deialdi honen bitartez bi programa arautzen dira: arrunta, finkatutako mugak gainditzen ez dituzten diru-sarrerak dituzten herritarrei zuzendua, eta berariazkoa, kolektibo jakinetako kideei zuzendua. Betebehar hauek bete beharko dira:

a) Bi programetarako betebehar orokorrak:

– 16 urte baino gehiago izatea. Behin 2019-2020 ikasturtea hasi ondoren betetzen badira urteak, momentu horretatik aurrerakoari dagokion diru-laguntza baino ezingo da jaso.

– Ikasturtea hasten den eguna baino urtebete lehenagotik eta ikastaroak dirauen bitartean Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea.

– Ikasturteko azterketak gainditzea (bederatzigarren oinarrian jaso da horri dagokion informazioa: seigarren puntutik hamargarrenera bitartean).

b) Programa bakoitzari dagozkion eskakizunak:

b.1) Programa arrunta, herritarrei, oro har, zuzendua:

Eskatzaileek ezingo dituzte gainditu deialdian finkatzen diren diru-sarreraren mugak. Bosgarren oinarrian jaso dira egoera batzuei eta besteei dagozkien mugak.

b.2) Berariazko programa, alde batetik gurasoei zuzendua, eta bestetik, berriz, aisialdiko begirale eta zuzendariari, eta orobat eskola-kiroleko zuzendari, epaile, entrenatzaile edo begiraleei eta horretarako ikasketak egiten ari direnei. Eskakizun hauetakoren bat bete beharko dute eskatzaileek:

– 2012tik aurrera (urte hori barne) jaiotako haur baten aita, ama edo tutore izatea.

– 2019-2020 ikasturtean aisialdiko begirale edo eskola-kiroleko entrenatzaile edo begirale gisa lan egitea.

– Aipatutako titulazioetako ikasketak egiten aritzea 2019-2020 ikasturtean.

5. Programa arrunta, herritarrei, oro har, zuzendua

5.1 Eskatzailearen errenta kalkulatzea.

Kalkuluak 2018ko errenta-aitorpenari aplikatuko zaizkio, eta familiaren errenta-mailatzat haxe joko da: familiaren zerga-oinarriari (zerga-oinarri orokorra gehi aurrezpenaren zerga-oinarria) familiaren kuota likidoa kenduz ateratzen dena. Eskatzaileak, diru-sarrerak izan arren, errenta-aitorpena egin behar izan ez badu, edozein kontzeptu dela eta egiaztatutako diru-sarrera gordinen baturaren ehuneko 95 hartuko da errentatzat.

Lau talde ezarri dira kalkulua egiteko, familiaren egoeraren arabera:

a) Baldin eta eskatzailea gurasoen etxean erroldatuta badago:

a.1) Kide bakartzat har dadin ondorengo eskakizunetako bat bete beharko du:

– bere errenta-aitorpena aurkeztea.

– gurasoen errenta-aitorpenean ez agertzea eta Arabako Foru Aldundiaren egiaztagiria aurkeztea, non aitortpena ez duela egin adieraziko baita.

a.2) Eskatzailea ez da kide bakartzat hartuko gurasoen errenta-aitorpenean ageri bada; kasu horretan aitortpenean ageri diren guraso eta anai-arrebak joko dira aintzat hartu beharreko kideztat, eskatzaileaz gain.

b) Baldin eta eskatzailea legez bereizi ez diren ezkontideek — edo Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote bateko kideek — eta horien adingabeko seme-alabek (gurasoen baimena tarteko haiekiko mendekotasunik gabe bizi direnak salbu) nahiz epai baten bidez ezgaitzat jo eta guraso-aginte luzatu edo berrezarriaren menpe jarritako adineko seme-alabek osaturako familia-unitate bateko kide bada, honako hauek joko dira aintzat hartu beharreko kideztat: eskatzailearen ezkontidea edo izatezko bikotekidea eta errenta-aitorpenean ageri diren seme-alabak, eskatzaileaz gain.

c) Baldin eta eskatzailea bakarrik badago erroldatuta bere bizilekuan, edo guraso, ezkontide edo izatezko bikotekide ez duen norbaitekin, kide bakartzat joko da.

d) Baldin eta eskatzailea bikotekidearen bizileku berean erroldatuta badago, baina bien artean ezkontza-loturarik edo parekorik ez badago, honako hauek joko dira aintzat hartu beharreko kideztat: bikotekidea eta, izanez gero, haren errenta-aitorpenean ageri diren seme-alabak, eskatzaileaz gain.

Aintzat hartu beharreko kide-kopuruaren arabera, eta oinarri honetako aurreko puntuetan aipatutakoa kontuan izanik, diru-sarrerak ezingo dituzte honako kopuruak gaindit

| KIDE-KOPURUA | EUSKALTEGI ETA AUTOIKASKUNTZA IKASTAROAK EDO MISTOAK | BARNETEGIA EDO ASTEKO 20 ORDUTIK GORAKO IKASTARO INTENTSIBOA |
|--------------|--|--|
| Kide bakarra | 14.826,00 euro | 18.298,28 euro |
| Bi kide | 25.308,00 euro | 36.596,56 euro |
| Hiru kide | 34.352,00 euro | 41.448,81 euro |
| Lau kide | 40.796,00 euro | 46.301,03 euro |
| Bost kide | 45.598,00 euro | 51.152,58 euro |
| Sei kide | 49.224,00 euro | 56.004,13 euro |
| Zazpi kide | 52.810,00 euro | 60.855,68 euro |
| Zortzi kide | 56.380,00 euro | 65.707,23 euro |

Kide gehiago badira, 3.562,00 euro gehituko dira horietako bakoitzeko, euskaltegiko edo autoikaskuntzako ikastaroen kasuan, eta 4.630,60 euro, barnetegiko ikastaroen kasuan.

Euskaltegietan antolatutako ikastaroak astean 20 ordukoak edo gehiagokoak badira, barnetegietan antolatutakoen parekotzat joko dira horietan sartzea ahalbidetzen duten diru-sarreraren mugei dagokienez.

5.2) Aurkeztu beharreko agiriak:

a) Eskabide-orria.

b) Nortasun-agiriaren fotokopia.

c) Euskaltegiaren ziurtagiria, datu hauek jasotzen dituena: matrikularen zenbatekoa, ikastaroaren hasiera- eta bukaera-datak, emango diren eskola-orduak eta, azkenik, abiapuntu den azpimaila, ezarritako helburua eta lortutako azpimailak. Eskatzaileak barnetegian ikasi badu, matrikularen gastuak bereizi egin beharko dira: alde batetik irakaskuntza, eta bestetik, berriz, ostatu- eta mantenu-gastuak.

Autoikaskuntza-ikastaroak badira, aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, zentroarekin izenpetutako kontratuaren fotokopia, non helburu akademikoak ageri diren.

d) Egindako banku-ordainketa guztien ordezkagiriak.

e) Beste erakunde batzuei helburu bererako eskatutako diru-laguntzei buruzko aitortpena, edo, eskuratu badira, horien zenbatekoari buruzkoa.

f) 2018ko ekitaldiko errenta-aitortpena. Ez da onartuko zergadunak edo aurrezki-kutxak aurkeztutako alea, Foru Aldundiak likidazioa egiteko onartutakoa baizik. Familia-egoera desberdinen arabera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

f.1) Eskatzailea gurasoekin erroldatua badago, hiru hauetako bat aurkeztu beharko du:

— Bere errenta-aitortpena, egin badu.

— Gurasoen errenta-aitortpenean ageri ez bada eta berea aurkeztu ez badu, Aldundiaren egiaztagiria, hala jasotzen duena.

— Gurasoen errenta-aitortpenean agertzen bada, alde batetik hori aurkeztu beharko du, eta bestetik, Foru Aldundiaren egiaztagiria, aitortpena ez duela egin adierazten duena. Gurasoak eta haien errenta-aitortpenean agertzen diren seme-alaba guztiak joko dira aintzat hartu beharreko kideztat, eskatzaileaz gain.

Oharra: banatuta edo hilda daudelako, gurasoen aitortpena aurkeztea ezinezkoa bada, eskatzaileak agiri hauetako bat aurkeztu beharko du: lehenengo kasuan, banatze-epaiaren edo hitzarmen arautzailearen fotokopia, eta bigarrenean, berriz, familia-liburuaren fotokopia edo erregistro zibilaren egiaztagiria.

f.2) Baldin eta eskatzailea legez bereizi ez diren ezkontideek —edo Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikote bateko kideek— eta horien adingabeko seme-alabek (gurasoen baimena tarteko haiekiko mendekotasunik gabe bizi direnak salbu) nahiz epai baten bidez ezgaitzat jo eta guraso-aginte luzatu edo berrezarriaren menpe jarritako adineko seme-alabek osatutako familia-unitate bateko kidea bada, honako hauek aurkeztu beharko ditu:

— Ezkontuta badago edo seme-alabak baditu, familia-liburuaren fotokopia —edo izatezko bikoteen erregistroko egiaztagiria, halakoetan—.

— Eskatzailearen eta haren bikotekidearen errenta-aitortpenaren fotokopia, edo Aldundiaren egiaztagiria, aurkeztu ez dutela jasotzen duena.

f.3) Baldin eta eskatzailea bakarrik badago erroldatuta bere bizilekuan, edo guraso, ezkontide edo izatezko bikotekide ez duen norbaitekin, bi hauetako bat aurkeztu beharko du:

— Errenta-aitortpena.

— Aurkeztu ez badu, honako hiru agiri hauek: Aldundiaren egiaztagiria —errenta-aitortpena egin ez duela adierazten duena—, lan-bizitzaren egiaztagiria eta T-10 agiria.

f.4) Baldin eta eskatzailea bikotekidearen bizileku berean erroldatuta badago, baina bien artean ezkontza-loturarik edo parekorik ez badago, hauek aurkeztu beharko ditu:

— Familia-liburuaren fotokopia, seme-alabarik izanez gero.

— Bien errenta-aitortpena edo Foru Aldundiaren egiaztagiria, aitortpena ez duela egin adierazten duena.

Udalak ofizioz eskatuko ditu eskatzailearen errolda-datuak, baita, izanez gero, bikotekidearenak ere.

Hala ere, aurkeztutako datuen egiaztasuna egiaztatuko du Udalak eta egoki ikusten dituen egiaztagiriak eskatuko, eskatzaileen diru-sarrerei buruzko informazioa lortzeko.

6. Berariazko programa, alde batetik gurasoei zuzendua, eta bestetik, berriz, aisialdiko begirale eta zuzendariei, eta orobat eskola-kiroleko zuzendari, epaile, entrenatzaile edo begiraleei eta horretarako ikasketak egiten ari direnei

6.1. Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte guztiek:

a) Eskabide-orria.

b) Nortasun-agiriaren fotokopia.

c) Euskaltegiaren ziurtagiria, datu hauek jasotzen dituena: matrikularen zenbatekoa, ikastaroaren hasiera- eta bukaera-datak, emango diren eskola-orduak eta, azkenik, abiapuntu den azpimaila, ezarritako helburua eta lortutako azpimailak. Eskatzaileak barnetegian ikasi badu, matrikularen gastuak bereizi egin beharko dira: alde batetik irakaskuntza, eta bestetik, berriz, ostatu- eta mantenu-gastuak.

d) Egindako banku-ordainketa guztien ordezkagiriak.

e) Beste erakunde batzuei helburu bererako eskatutako diru-laguntzei buruzko aitortpena, edo, eskuratu badira, horien zenbatekoari buruzkoa.

6.2. Eskabidea gurasoentzako programaren barruan aurkezten badute, familia-liburuaren fotokopia ere aurkeztu beharko dute.

6.3. Eskabidea begirale, zuzendari edo entrenatzaileen programan aurkezten badute, agiri hauetako bat aurkeztu beharko dute:

a) Matrikula-ziurtagiria, eskatzailea —2019-2020 ikasturtean— horretarako ikasketak egiten ari dela adierazten duena.

b) Begirale, entrenatzaile edo zuzendari titulua, eta 2019-2020 ikasturtean zerbitzua ematen den enpresaren edo erakunde ofizialaren egiaztagiria.

7. Gerora sortutako egoerak

Familia egoera nabarmenki aldatu bada errenta-aitortpena egin zenetik, idatziz adierazi beharko dira aldaketak, eta dagozkion egiaztagiriak aurkeztu, eskabidea egiten denean. Hala ere, 2019ko errenta-aitortpena 2020ko urriaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da, ebazteko erabakigarria izango baita.

8. Eskabideak aurkezteko modua eta epea

San Antonio kaleko herritarrei laguntzeko bulegoan nahiz gizarte-etxeetakoetan banatuko diren inprimakiak —eranskin orokorra eta berariazko eranskina— baliatuz egin beharko dira eskabideak, eta leku horietan bertan aurkeztu, eskatzen diren agiriak erantsita.

Aurkezteko epea: 2020ko uztailaren 31ra arte.

9. Eskabideak aztertu eta ebaztea. Laguntza emateko prozedura

9.1. Tokiko Gobernu Batzarrak Alkatzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten du diru-laguntza hauek emateko eskumena.

9.2. Alkatzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Euskara Zerbitzuak egingo dio diru-laguntzak emateko proposamena zinegotzi ordezkariari, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua ildotik eratuko den kide anitzeko organo baten bitartez. Hiru kidek osatuko dute delako organoa: Euskara Zerbitzuko buruak edo ordezkari izendatzen duenak eta Euskara Zerbitzuko bi teknikaririk.

9.3. Alkatzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenak iragarki-taula digitalean argitaratuko dira, ondoren adierazten diren datetan, behin betiko ebazpena ALHAOn ere argitaratuko bada ere:

— 4. 2020ko azaroaren 4an: onartu eta bazter utzitako eskabideen behin-behineko zerrendak, baita dokumentazioa osatu behar dutenena ere. Hamabost egun balioduneko epea emango da, zerrendak argitaratzen diren egunaren —azaroaren 4a— biharamunetik, erreklamazioak aurkezteko edo dokumentazioa aurkezteko. Eskatutako agiriak aurkeztu ezean, eskatzaileak eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko da eta ebazpena emango da, 21. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

— Adierazitako epearen barruan erreklamaziorik egiten ez bada, edo eskatutako agiriak aurkeztzen, onartu eta bazter utzitako eskabideen behin-behineko zerrendak behin betikotzat izatera pasako dira. Erreklamaziorik egin edo agiri osagarririk aurkeztuz gero, horiek aztertu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, 2020ko azaroaren 30ean argitaratuko da onartu eta bazter utzitako eskabideen behin betiko zerrenda.

9.4. Nolanahi ere, ALHAOn ere argitaratuko da behin betiko ebazpena. Ebazpen horrek agortu egingo du administrazio-bidea, eta berorren kontra aukerako berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, ALHAOn emaitzen argitalpen ofiziala egiten den egunaren biharamunetik, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitalpen ofiziala egiten den egunaren biharamunetik.

9.5. San Antonio kaleko eta gizarte-etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoetan argitaratuko dira ebazpenak eta zerrendak, baita iragarki-taula digitalean eta euskaltegietako idazkaritzetan ere, nahiz eta, nolanahi ere, ALHAOn ere argitaratuko den behin betiko ebazpena.

9.6. Diru-laguntza bakarra emango da azpimaila bakoitzerako, nahiz eta hiru errepikapen onartuko diren ikaskuntza-prozesuan: bata, A mailako azpimaila batean; bigarrena, B mailako azpimaila batean, eta hirugarrena, berriz, C mailako azpimaila batean.

9.7. Diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzea.

Aurrez aurreko ikastaroei nahiz autoikaskuntzakoei eta mistoei aplikatuko zaie. Ikasturteko azpimaila guztiak gainditzen badituzte, ordaindutako matrikularen ehuneko 80ra arte lortu ahal izango dute eskatzaileek, programa arruntean, eta ehuneko 50era arte, aldiz, berariazko programan. Azpimaila guztiak gainditzen ez badira, hainbanaketa egingo da.

Barnetegiko ikastaroak badira, irakaskuntza gastuetarako bakarrik emango da diru-laguntza; ez ostatua eta mantenua ordaintzeko.

Partidaren zuzkidura ekonomikoa agortzen ez bada, eta beti ere gainerako klausulak errespetatzen direlarik, deialdian soberan geratutakoa hainbanatu egingo da, eta ordaindutako matrikularen ehuneko 90era arte lortu ahal izango da programa arruntean, eta ehuneko 60ra arte, aldiz, berariazko programan.

9.8. Diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileek lortutako emaitzen arabera ebatziko da. Dena den, 2019-2020 ikasturtean, herritar bakoitzari gehienez 750,00 euro emango dizkio Udalak.

9.9. Diru-laguntzak —interesdunak beste edozein erakundetatik jasotzen dituenak gehitzen zaizkiolarik— ezingo du gainditu matrikularen zenbatekoa. Hala gertatuz gero, modu proportzionalean murriztuko da emandako diru-laguntza, deialdi honen ildotik.

9.10. Eskatzaileek eskatutakoak aurrekontu-partidan dagoen kreditua gainditzen badu, hainbanaketa aplikatuko da diru-laguntzak emateko prozeduran.

10. Datuak egiazkoak ez izateaz

Eskabidean eman beharreko datu guztiak ez emateak edo daturen bat nahiz eransten diren agirietaoren bat faltsu izateak eskabidea baliorik gabe uztea ekarriko du berekin, eta eskatzaileen gain eroriko dira erantzukizunak.

11. Datu pertsonalen tratamendua

Diru-laguntza eskatzen dutenek baimena ematen diote Gasteizko Udalari deialdian ezarritako helburuak betetze aldera beharrezko diren datu pertsonalak eskuratzeko.

12. Bestelako xedapenak

Prozedurari buruz oinarri hauetan arautu gabekoei dagozkienetan, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak —2019ko otsailaren 13ko ALHAO—, Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza —2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. Zenbakia —, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ematen diren diru-laguntza eta laguntzak Gasteizko Udalaren Gardentasun Atarian argitaratu beharko dira, xehetasun hauekin: zenbatekoa, xedea edo helburua eta onuradunak.